

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

CLEANWOOD PROIEKTUA, HARITZEZKO UPELAK ESTERILIZATZEKO.

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udallerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Arabako Errioxako Landa Garapeneko Planaren helburu orokorretako bat DUGU ESKUALDEAREN GARAPEN EKONOMIKOA GAUZATZEA, BEREZIKI. MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA SEKTOREAK. Hala, proiektu horren bidez, ardogintzan diharduten upategiek eskatu baina lehen ez zegoen zerbitzu bat sortu da, eskualdeko jarduera ekonomikoa dibertsifikatu da, eta, aldi berean, lanpostuak sortu dira ingurune hurbilenean.

5.- Inbertsio totala: 1.150.959,00 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 170.151,22 euro
Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

CLEANWOOD TECHNOLOGY, S.L.

- Publikoa
- Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

CLEANWOOD TECHNOLOGY, S.L.

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Lantziego, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Tradizioz, upelak urdaiztatze-teknika erabiliz desinfektatu ohi dira, hau da, sufrea upelen barruan erreta. Horrela, askatutako sulfuro dioxidoak (SO_2) gai desinfektatzaile jarduten du, eta Brett legamiak ateratzen duen *zaldi-izerdiaren* usain bereizgarria kentzen du. Hala ere, Europako Batzordearen 98/8/CE2 Zuzentarauak sulfuro dioxidoa debekatu zuen upelak desinfektatzeko lanetan eta, zuzentaraua argitaratu zenetik, konponbide berriak bilatu behar izan dira, jarduera hori ikuspuntu ekonomiko zein operatibotik bideragarria izan dadin, betiere desinfekzio eraginkorra bermatuta. Espainian, ardo-upelak desinfektatzeko anhidrido sulfurosoaren erabilera debekatzeari buruzko luzamendu-akordioa badago ere, ingurumari berriari esker, upelak desinfektatzeko ordezko teknologia berriak agertu dira (termikoa, ozono bidez, kabitazio bidez edo hondar-zurrustaz).

Arazaori irtenbidea emateko, CLEANWOOD enpresak Microwave Shock Pulse (MwSP) teknologia garatu du elikaduraren sektoreko nazioko eta nazioarteko upategi eta enpresa nagusiekin elkarlanean. Teknologia horren bidez, upeletan bizi diren mikroorganismoen populazioak osoki ezabatzeko gai den mikrouhin-patroi jakina aplikatzen da, upelaren zurari kalterik egin gabe eta, beraz, haien bizitza erabilgarria zainduz eta luzatuz.

Abantailak beste tratamendu batzuen aurrean

MwSP teknologiak upelak desinfektatzeko eskaintzen duen abantaila nagusia da upelen zura erabat desinfektatzeko gai den soluzio bakarra dela, organismoak, bakterioak, onddoak, sitsak, legamiak eta, jakina, Brett desinfektatzeko gai delako.

Hauexek dira ekoizpen-abantaila nabariak mahastizaintzako eta ardogintzako enpresentzat:

- Zura zaintzen du: upelaren zura dagoen-dagoenen uzten duen bakarra da, eta, horri esker, zuraren bizitza erabilgarria % 50 inguru luzatzen da.
- Prozesu-denbora: gaur egun, desinfekzio-denbora 3 minututik beherakoa da, eta are gehiago murriztea espero da. Horrek eragin txiki-txikia bermatzen du upeltegien jardunean eta energia-kontsumoan.
- Kostuak: kostua egun erabiltzen den aukera merkeenaren prezioaren parekoa da, hau da, ur ozonizatuaren erabileraren parekoa, baina MwSP teknologia askoz merkeagoa da. Beraz, MwSP bidezko desinfektazioak produktuaren azken prezioan dakarren ondorioa hutsala da.
- Ingurumen-abantailak

Teknologia hori erabiltzearen ziozko ingurumen-abantaila dagokienez, honako hauek aipa ditzakegu:

- Ordezko teknologiak ezin dira industrializatu eta ur eta energia kontsumo handiak dituzte. CLEANWOOD MwSP metodoak 3 minutu eskasetan garbitzen du upela, urtean behin, eta 30 litroko ur-kontsumoa du upeleko, desinfekzio-prozesuaren ondotik, hasierako garbiketa eta irakuzketa besterik ez baita behar. Gainera, industrializatu egin daiteke upelaren

garbiketa-linean (garbiketa-trena) txertatuz, ekoizpena eteteko beharrik gabe, eta kontsumitutako energia (% 45) nahiz ura (% 60) aurreztu daitezke.

- CLEANWOODek anhidrido sulfurosoaren erabilera baztertzen du, eta, beraz, ingurumenarekiko kutsadurarik ez dago.
- CLEANWOOD upelari kalterik egiten ez dion desinfekzio-metodoa, eta, beraz, arazorik gabe berrerabil daiteke. Horrek, jakina, upel berriak erosteko beharri lotutako kostuak aurrezten ditu, eta, horren ondorioz, upelak egiteko behar diren zuhaitzen mozketaren (hariztiak eta abar) izugarri murrizten da, teknika berritzaile hau erabiltzen duten upeltegien aztarna ekologikoa hein handian hobetuta.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Cleanwoodek teknologia berritzaile eta eraginkorra dakar upelak garbitzeko.

Zerbitzua bezeroaren instalazioetan bertan ematen da (mugitu behar diren makinak arabera egokitutako kamioia daukagu) edo, bestela, enpresaren instalazioetan.

Negozia gure eskualdean garatzeak jarduera ekonomikoa sortzen du eta enpresei hurbileko zerbitzua eskaintzen die.

Teknologia eredu-garria da eskualdean, eta ardogintza hobetzen du, prozesu ekologiko eta garbiago bati esker.